

HITANOA

Sarrera

Esan beharrik ere ez dago hitanoaren erabilera oso zaharra dela euskararen historian. Gaur egun, pentsa daiteke hitanoa ahozko kontua dela soilik, baina idatzirik ere erabiltzen izan da, baita euskarazko lehenbiziko liburuetan ere: Etxepereren *Linguae Vasconum Primitiaen*, Leizarragaren *Testamentu Berrian*, Etxeberri Ziburukoaren *Manual Devotionezcoan*... Argi dago, baina, denboraren poderioz, hitanoaren erabilera indarra galduz joan dela, bai idatzizkoan, bai ahozkoan.

Erregistroari gagozkiola, adinkide edota lagunarteko hizkeratzat jotzen izan da, eskuarki. Hortik kanpora, begirune faltatzat hartzen izan du batek baino gehiagok hitanoaren edota hikaren erabilera. Baina gogoan izan behar dugu behiala ez zela hori gertatzen. Kasurako, Leizarraga hika zuzendu zitzaion Jainkoari testamentu berriaren itzulpenean.

Aldaketak aldaketa, argi dago hitanoak euskararen aberastasun gradu bat adierazten duela, eta haren erabilera oso egokia izan daitekeela gaur egun ere, batez ere, lagunarteko erregistroan. Horretarako, ostera, gogoia eta ezagutza behar dira. Gogoia, ALBeren inguruko bertsolari eta bertsozale batzuei piztu zitzairen halako batean, eta eurek xaxatuta adoretu gara ezagutza horren zati bat denon esku jartzera, taula batzuk atondu eta webgune honetan bertan eskegita.

Hika eta hitanoa

Hika eta hitanoa ez dira gauza bera, nahiz eta zenbait testuingurutan esangura bertsuarekin erabili ohi ditugun.

- *Hi* bigarren graduko pertsona izenordain singularra dugu (gaztelaniazko *tú*ren parekoa); eta *zu*, berriz, bigarren graduko pertsona izenordain plurala genuke, singularra badirudi ere (erreparatu *zu* formari dagozkien adizkien partikula pluralgileei: *zatzait*). *Zu* forma gaztelaniazko *usted/vos* formen parekoa litzateke.

Hi forma eta hari dagozkion adizkiak erabiltzeak, ostera, ez du ezinbestean eskatzen hitanoaren erabilera, hau da, adizki guztien egokitzapena.

- Hitanoak aditz joko oso bat dakarren erabilera da. Batetik, hikaren formak darabiltza (*zu* pertsona-izenordaina eta *zu* formari dagozkion morfema guztiak, *hi* izenordaina eta *hi* formari dagozkionak bilakatzen dira); baina hortik gora ere, gainerako adizkiak aldatu egiten dira, alokutibo bihurtuta. Halandaze, hitanoz egiten dugunean, adizki alokutiboak erabili ohi ditugu adizki arrunten ordeztuz (*naiz* > *nauk/naun*, *dut* > *diat/dinat*...).

Erabilera bi horiek diakronian ulertzeko, Xabier Kintanaren berbak batu ditugu hemen, hikaren eta hitanoaren arteko aldea ondo ulertzeko lagungarri gerta daitezkeelakoan.

Hitano zahar oinarrizkoaren lekukotasuna

Xabier Kintana euskaltzainak azaldu duenez, Lazarragak bigarren pertsonari hika egiten dionean, horrek ez dakar gainerako adizki guztiak ere alokutiboak formari (hitanoan) jarri beharra. Konparazio baterako, Lazarragak bazekien *hi haiz* formaren ondoan *ni nauk* esan zitekeela, baina aldi berean zilegi zuela *ni naiz* ere erabiltzea. Hau da, Lazarragak hitanoaren bi eredu darabiltza:

- Gaurko gramatiketako hitanoa, Leizarragak geroztiko tradizioan, XIX. mendearen bukaeraraino, ia salbuespenik gabe erabili dena: adizki alokutiboak jarriz baiezko nahiz ezezko perpaus nagusietan (baina ez, ordea, galderetan, harridura perpausetan, subjuntiboetan, imperatiboetan eta menpeko perpausetan). Funtsean, hori da euskara batuan nagusitu den sistema ere.
- Xabier Kintanak *oinarrizko hitanoa* edo *hitano murriztua* deritzona, XVI. menderaino erabili bide zen sistema: *hi* pertsona aditzaren NOR, NORI edo NORK ez denean, aditza bere horretan mantentzea, hitanoko formetara aldatu gabe (*ni naiz*, eta ez *ni nauk*).

Dirudienez, oinarrizko hitano hori (alokutiborik gabekoa) da erabilera zaharrena. Alokutibozko forma adizki guztietara XVI. mendea baino lehentxeago hasi zitzaigun hedatzen, eta, hasieran, Euskal Herriko toki zehatz batzuetan baino ez. Euskaltzaindiak, bestalde, adizki alokutiboak arautu dituen arren, oraindik ez du arautu noiz eta nola erabili behar diren. Haien esanetan: «Euskaltzaindiaren lana adizkeren formaren finkatzea izan da, eta ez da sartu erabilera arazoetan». Beraz, euskara batuko araurik ez luke urratuko oinarrizko hitanoa erabiltzeak, nahiz eta aspalditik euskarari erabili ez den molde bat den.

Hori guztia kontuan hartuta, eta hitanoa izaten ari den atzerakada larria ikusirik, Xabier Kintanak proposatu du hurrei eta euskara ikasleei oinarrizko sistema hori irakastea, galbidean den hitanoa indarberritzearen, eta alokutibozko sistema konplexua errazago ikasteko oinarria izan dadin.

Hona hemen adibide batzuk, oinarrizko hitanoa (alokutibogabea) eta hitano osoa (alokutiboduna) euskara batuan aplikatuz:

Zukako adizkia	Hikako adizkia (solaskide gizonezkoa / emakumezkoa)	
	Leizarragaren ereduko <i>oinarrizko hitanoa</i>	Hitano osoa (adizki alokutiboduna)
zara	haiz	haiz
naiz	naiz	nauk / naun

dugu	dugu	diagu / dinagu
zaitut	haut	haut
dizkizut	dizkiat / dizkinat	dizkiat / dizkinat
dizkiet	dizkiet	zizkieat / zizkienat
nator	nator	natorrek / natorren
zebilen	zebilen	zebilean / zebilenan
dakigu	dakigu	zakiagu, zekiagu / zakinagu, zekinagu

Berriz ere Lazarragaren eskuizkribura etorrira, hona hemen erabilera alokutibodunaren adibide bat (letra lodiz nabarmendu ditugu hikako lau adizkiak; erdiko biak dira alokutiboak):

Donostiaco San Françiscuan
agoan giçon soldadua
Donçelleoni eguin ***jacac***
Yzta ondoan anditua

*Nyc lançeteaz **jo diat** eta
Oy yc **eçarroc** emplastua. [1193-r]*

Eta hemen, erabilera alokutibogabea (hau da, *oinarrizko hitanoa*; letra lodiz nabarmendu ditugu hikako adizki bakarra — lehenengoa— eta hitano osoan alokutiboak liratekeen hiru adizkiak):

*Arçai polita, **yc jaquingo doc** eçe guec goaçela Dueroco riberara, çegaiti **ençun dogu** ezen Silvero derechan arçai batec dabela lucha andiac armatu comarcaetako arçai guztiaquin eta dagoala denporea asignadur [sic] egun seigarren eguneco. Eta ala ene lagun au eta ni **goaç** ara Silveroren jentilezac ecusterren çegaiti utra manera andian daçauen guztioç **alabadu deuscue**. [1147 r-v]*

Adizki alokutiboak euskara batuan

Jarraian dituzue Euskaltzaindiaren azalpenak adizki alokutiboen inguruan:

ADIZKI ALOKUTIBOAK (HIKAKO MOLDEA)

Oharrak:

- 1) Lehen-lehenik erran beharra da aditz alokutiboen parte bat baizik ez duela finkatu Euskaltzaindiak, hikako moldeari doakiona, hain zuzen ere. Zukako adizkera alokutiboek, ekialdeko euskalkietan bereziki erabiltzen direnek, batu gabe segitzen dute, beraz, oraino.
- 2) Euskaltzaindiaren lana adizkeren formaren finkatzea izan da, eta ez da sartu erabilera arazoetan. Jakina denez, korapilo asko ditu erabilerak, bai morfosintaxiaren aldetik, bai eta, are gehiago, gizarteko baliagarritasunaren aldetik ere.

Aditz laguntzaileak hitano batuan

Adizkera alokutibo batuen eratzeko, eztabaidakako adizkera batuen formetan oinarritu da Euskaltzaindia, aldi bakoitzean alokutibotasunak dakartzan mudantzak kontuan harturik, noski. Jokabide desberdinen artean hautuak egiterakoan, erdibideko jokabideei eman zaie lehentasuna, bai eta sinpletasunari eta argitasunari ere. Horrela tradizioa kontuan harturik, baina mintzairaren bizitasuna ahantzi gabe eratu nahi izan dira paradigmak, orohar aitzineko urratsetako egiteko moldeari jarraiki izan zaiolarik. Hona hemen egin diren hautu garrantzi handikoenak:

- Erro aldaketa izaten den kasuetan, sail bateko paradigma guzietan agertaraztea; horrela, - NOR bakarreko izan-en adizkera alokutiboentzat *-u-* erroa onartu da, aldi guzietan eta ke-dun formetan ere bai: adibidez, *dateke* → *dukek*, eta ez *datekek*; *litzateke* → *lukek*, eta ez *litzatekek*. - (NOR-) NORK saileko edun-en adizkera alokutiboentzat *-i-* erroa onartu da, aldi guzietan, eta pertsona guzietan: adibidez, *nau* → *naik*, eta ez *n(i)auk*. Azken kasu honetan NOR pluralaren morfema gisa *it* hobetsi da (*zki* baino): adibidez, *ditu* → *ditik* eta ez *dizkik*.
- Lehen silaban *-i-* ez da onartu (ez orainaldian, ez eta erro aldaketarik gabeko formetan ere): adibidez, *natzaio* → *natzaiok*, eta ez *niatzaiok*.
- Indize alokutiboa ergatiboarenaren ezkerrean ematea (eta ez haren eskuinean) onartu da, salbu morfema ergatiboa *-te* denean: adibidez, *diagu*, eta ez *diguk*, baina *ditek* eta ez *diate* (edo *die*).
- *Izan*-en ez-oraineko NOR bakarreko 3. pertsonako adizkera alokutiboentzat, 2. pertsonako indizea atzizki gisa dakarten formak hobestea (aurrizki gisa daukatenak baino): adibidez, *zen* → *zuan*, eta ez *huen*.
- Pertsona aurritzirik ez duten orainaldiko adizkeretan *d* → *z* aldaketa onartu da erro-aldaketarik ez dakarten adizkera alokutibo ergatibodunetan: adibidez, *dezake* → *zezakek*, *dio* → *ziok*, baina *du* → *dik* (eta ez *zik*).

TOKIAN TOKIKO HITANOA (Uribe Butroeko aldaera)

Idatzizko hitano hiztorikoaz eta hitano estandarraz egin dugu berba puntu honen aurretik, baina zeharka aipatu dugunez, hitanoak gaur egun ahozkoan du indarririk handiena, hor ere atzeraka ari zaigun arren. Eta euskal ahozko berbakerak herrialdetik herrialdera, herritik herrira eta eskualdetik eskualdera aldatzen diren moduan, hitanoa ere aldatu egiten da, zer herrialdetan, eskualdetan edo herritan entzuten dugun.

ALBEren inguru naturalera etorrira, garai batean ohikoa zen hitanoa Uribe Kosta osoan entzutea. Gaur egun, baina, forma fosildu batzuk baino ez dira lotzen adadeko euskaldunen ezpainetan (*Egi **dok** hori!* edo *Zer **dinona** baie!*). Inguru honetako hitanoaren adizki-taula osatu samar bat aurkeztekotan, Iñaki Gaminde filologo nekaezinarengana jo behar dugu. Iñakik 1982. urtean material bat argitaratu zuen Butroiko euskara izenburupean. Iñaki ikerlari adituak bost laguntzaile izan zituen lagun material hori osatzeko: Bibiana Barandika (68 urte), Joxe Barandika (60 urte), Maria Bilbao (69 urte), Ana Fano (44 urte) eta Esther Elgoibar (23 urte). Eskerrak ematen dizkiegu haiei guztiei eta, zelan ez, Iñakiri berari gure arbasoen jakinduria gure eskuetaraino ekartzearrik.

Halaxe, bada, Iñakiren material horretatik atera ditugu taula honetan agertzen ditugun adizki alokutiboak (**gorriz**). Taula honetan, Uribe Butroeko aldeko adizki alokutiboez gain, euskara batuko eta bizkaiera batuko adizkiak ere ipini ditugu, erregistro arruntekoak zein alokutiboak, bertoko formak errazago kokatzeko eta hobeto ulertzeko.

Esan beharrik ez dago Gamindek emaneko adizki horiek formaz apur bat aldatu litezkeela eskualde bereko toki batetik bestera (bustidura, bokalismoa, adizki alternatiboren bat...), baina alde handiegirik ez zen egongo Getxotik Gataraino eta Gornizetik Leioaraino.

Material xume hau gure bertsozale, bertsolari zein euskaltzaleen jakin-gosea asetzeko bestekoa izango ahal da! Ea orain gu guztiok gauza garen paperean eskaintzen dugun hau ezpainetaraino eroateko. Hala biz!

Uribe Butroe aldeko

HITANOA

(eztoketabadok)

- Kortxete arteko formak [] ez dira alokutiboak, *hi* pertsonari (2. pertsona, singularra) dagozkion adizkiak baino.
- Taula honetan ez daude adizki guzti-guztiak. Uribe Butroeko aldaeran erabiltzen ez diren adizki-jokoak saihestu egin ditugu.
- Bizkaiera batuaren adizkietan, aukera bat baino gehiago zegoen kasuetan, forma bakarra hautatu dugu.

Aditzaren modua eta denbora	ADIZKIAK batuaz (Euskaltzaindia)	ADIZKIAK bizkaiera batuaz (A. Arejita, J. Eguzkiza, J.M. Irazola, J. Uriarte)	ADIZKIAK butroieraz (Iñaki Gaminde)	ADIZKI alokutiboak batuaz (Euskaltzaindia)	ADIZKI alokutiboak bizkaiera batuaz (Eneko Barrutia)	ADIZKI alokutiboak butroieraz (Iñaki Gaminde)
NOR Indikatiboa oraina	naiz	naz	nas	nauk/naun	nok/non	nok/nona
	haiz	haz	as	[haiz]	[haz]	[as]
	da	da	da	duk/dun	dok/don	dok/dona
	gara	gara	gara/gare	gaituk/gaitun	gozak/gozan	gosak/gosena
	dira	dira	dire(s)	dituk/ditun	dozak/dozan	dosak/dosena
NOR Indikatiboa iragana	nintzen	nintzan	nitzen	ninduan/nindunan	nintzoan/nintzozan	nitzon/nitzona
	hintzen	hintzan	intzen	[hintzen]	[hintzoan]	[intzen]
	zen	zan	san	zuan/zunan	zoan/zonan	son/sona
	ginen	ginan	giñen	gintuan/gintunan	gintzoazan/gintzozazan	gitzosan/gitzosana
	ziren	ziran	siren	zituan/zitunan	zoazan/zozazan	sosan/sosana
NOR Indikatiboa Baldintza aurrekoa	banintz	banintz	banitz	---	banintzok/banintzozan	---
	bahintz	bahintz	bainttike	[---]	[bahintz]	[bainttike]
	balitz	balitz	balitz	---	balitzok/balitzozan	---
	bagina	bagintz	bagintze	---	bagintzok/bagintzozan	---
NOR Indikatiboa Baldintza ondorioa hipotetikoa	balira	balitzaz	balitzes	---	balitzok/balitzozan	---
	nintzateke	nintza(te)ke	nittike	nindukek/ninduken	nintza(te)kek/nintza(te)ken	nittikek/nittikena
	hintzateke	hintza(te)ke	inttike	[hintzateke]	[hintza(te)ke]	[inttike]
	litzateke	litza(te)ke	littike	lukek/luken	litza(te)kek/litza(te)ken	littikek/littikena
	ginateke	gintzatekez	ginttike	gintuzkek/gintuzken	gintza(te)kezak/gintza(te)kezan	ginttikesak/ginttikesena
Subjuntiboa	lirateke	litzatekez	littikes	lituzkek/lituzken	litza(te)kezak/litza(te)kezan	littikesak/littikesena
Agintera	hadin	haiten	aitten	[hadin]	[haiten]	[aitten]
	hadi	haite	ai	[hadi]	[haite]	[ai]
	naiteke	naiteke	nittike	naitekek/naiteken	najaitetek/najaiteken	nittikek/nittikena

NOR Ahalera oraina	haiteke	haiteke	inttike	[haiteke]	[haiteke]	[inttike]
	daiteke	daiteke	littike	daitekek/daiteken	jaitekek/jaiteken	littikek/littikena
	gaitezke	gaitekez	geinttikis	gaitezkek/gaitezken	gajaitkezak/gajaitkezan	ginttikesak/ginttikesena
	daitezke	daitekez	littikes	daitezkek/daitezken	jaitekezak/jaitekezan	littikesak/littikesena
NOR-NORI Indikatiboa oraina (hura)	zait	jat	daste/dat	zaidak/zaidan	jatak/jatan	yastek/yastena
	zaik/zain	jak/jan	yak/dak	[zaik/zain]	[jak/jan]	[yak, dak/yana, dana]
	zaio	jako	dako	zaiok/zaion	jakok/jakon	yakok/yakona
	zaigu	jaku	daku	zaiguk/zaigun	jakuk/jakun	yakuk/yakuna
NOR-NORI Indikatiboa oraina (haiek)	zaie	jake	dake	zaiek/zaien	jakek/jaken	yakek/yakena
	zaizkit	jataz	dastes	zaizkidak/zaizkidan	jatazak/jatazan	yatesak/yatesena
	zaizkik/zaizkin	jazak/jazan	(y/d)asak/(y/d)asena	[zaizkik/zaizkin]	[jazak/jazan]	[(y/d)asak/(y/d)asena]
	zaizkio	jakoz	dakos	zaizkiok/zaizkion	jakozak/jakozan	yakosak
NOR-NORI Indikatiboa iragana (hura)	zaizkigu	jakuz	dakus	zaizkiguk/zaizkigun	jakuzak/jakuzan	yakusek/yakusena
	zaizkie	jakez	dakes	zaizkiek/zaizkien	jakezak/jakezan	yakesak/yakesena
	zitzaidan	jatan	asten	zitzaidaan/zitzaidan	jataan/jatanan	yaten/yatena
	zitzaian/zitzaian	jataan/jatanan	yan/yana	[zitzaian/zitzaian]	[jataan/jatanan]	[yan/yana]
NOR-NORI Indikatiboa iragana (haiek)	zitzaion	jakon	akon	zitzaioan/zitzaion	jakoan/jakon	yakon/yakona
	zitzaigun	jakun	akun	zitzaiguan/zitzaigun	jakuan/jakun	yakun/yakuna
	zitzaian	jaken	aken	zitzaiean/zitzaiean	jakean/jaken	yaken/yakena
	zitzaizkidan	jatazan	astesan	zitzaizkidaan/zitzaizkidan	jataazan/jatanazan	yatesan/yatesena
NOR-NORI Indikatiboa iragana (haiek)	zitzaizkian/zitzaizkin	jataazan/jatanazan	yasen/yasena	[zitzaizkian/zitzaizkin]	[jataazan/jatanazan]	[yasen/yasena]
	zitzaizkion	jakozan	akosan	zitzaizkioan/zitzaizkion	jakoazan/jakonazan	yakosan/yakosena
	zitzaizkigun	jakuzan	akusen	zitzaizkiguan/zitzaizkigun	jakuazan/jakunazan	yakusan/yakusena
	zitzaizkien	jakezan	akesan	zitzaizkiean/zitzaizkien	jakeazan/jakenazan	yakesan/yakesena
NOR-NORI Baldintza ondorioa hipotetikoa (hura)	litzaidake	litzakit	litzizkitt	litzaidakek/litzaidaken	litzakidak/litzakidan	litzikidek/litzikidena
	litzaiake/litzainake	litzakik/litzakin	litzikik/litzikiñe	[litzaiake/litzainake]	[litzakik/litzakin]	[litzikik/litzikiñe]
	litzaioke	litzakio	litzikio	litzaiokek/litzaioken	litzakiok/litzakion	litzikiok/litzikiona
	litzaiuke	litzakigu	litzikiu	litzaiukek/litzaiuken	litzakiguk/litzakigun	litzikiuk/litzikiune
NOR-NORI Baldintza ondorioa hipotetikoa (haiek)	litzaiieke	litzakie	litzikie	litzaiiekek/litzaiieken	litzakiek/litzakien	litzikiek/litzikiena
	litzaidake	litzakidaz	litzikides	litzaidakek/litzaidaken	litzakidazak/litzakidazan	litzikidesak/litzikidesena
	litzaiakie/litzaiakinake	litzakiaz/litzakinaz	litzikixek/litzikixena	[litzaiakie/litzaiakinake]	[litzakiazak/litzakiazan]	[litzikixek/litzikixena]
	litzaiakioke	litzakioz	litzikios	litzaiakiokek/litzaiakiozen	litzakiozak/litzakiozan	litzikiosak/litzikiosena
NOR-NORI Ahalera	litzaiakiguke	litzakiguz	litzikius	litzaiakigukek/litzaiakigukun	litzakiguzak/litzakiguzan	litzikiusek/litzikiusena
	litzaiakieke	litzakiez	litzikies	litzaiakiekek/litzaiakieken	litzakiezak/litzakiezan	litzikiesak/litzikiesena
NOR-NORI Ahalera	lekidake	lekiket	leiskitt	lekidakek/lekidaken	lekikedak/lekikedan	leiskidek/leiskidena
	lekiake/lekinake	lekikek/lekiken	leiskik/leiskiñe	[lekiake/lekinake]	[lekikek/lekiken]	[leiskik/leiskiñe]

hipotetikoa (hura)	lekiok	lekioko	leiskio	lekiok/lekioken	lekiok/lekioken	leiskio/leiskioa
	lekiguke	lekigegu	leiskigu	lekiguke/lekiguen	lekiguke/lekiguen	leiskiu/leiskiu
	lekieke	lekikee	leiskie	lekieke/lekieken	lekikee/lekikeen	leiskie/leiskiena
NOR-NORI Ahalera hipotetikoa (haiek)	lekizkidake	lekikedaz	leiskides	lekizkidake/lekizkidaken	lekikedaz/lekikedazan	leiskidesak/leiskidesena
	lekizkiake/lekizkinake	lekikeaz/lekikenaz	leiskixek/leiskixena	lekizkiake/lekizkinake	[lekikezak/lekikezan]	[leiskixek/leiskixena]
	lekizkiok	lekikeoz	leiskios	lekizkiok/lekizkioken	lekikeozak/lekikeozan	leiskiosak/leiskiosena
	lekizkiguke	lekikeguz	leiskigus	lekizkiguke/lekizkiguen	lekikeguzak/lekikeguzan	leiskiusak/leiskiusena
	lekizkieke	lekikeez	leiskies	lekizkieke/lekizkieken	lekikeezak/lekikeezan	leiskiesak/leiskiesena
NOR-NORK Indikatiboa oraina (ni)	nauk/naun	nok/non	nok/nona	[nauk/naun]	[nok/non]	[nok/nona]
	nau	nau	nau, neu	naik/nain	najok/najon	niok/niona
	naute	nabe	neude, nere	naitek/naiten	najuek/najuen	neiek/naiena
NOR-NORK Indikatiboa oraina (hi)	haut	haut	aut/eut	[haut]	[haut]	[aut/eut]
	hau	hau	au	[hau]	[hau]	[au]
	haute	habe	ae	[haute]	[habe]	[ae]
NOR-NORK Indikatiboa oraina (gu)	gaituk/gaitun	gozak/gozan	gosak/gosena	[gaituk/gaitun]	[gozak/gozan]	[gosak/gosena]
	gaitu	gaitu	gittu(s)	gaitik/gaitin	gajozak/gajozan	giosak/giosena
	gaituzte	gaitue	gittue	gaitiztek/gaitizten	gajuezak/gajuezan	gaiyosak/gaiyosena
NOR-NORK Indikatiboa oraina (hura)	du	du	du	diat/dinat	joat/jonat	yot/yotena
	duk/dun	dok/don	dok/dona	[duk/dun]	[dok/don]	[dok/dona]
	du	dau	dau, deu	dik/din	jok/jon	yok/yona
	dugu	dogu	du	diagu/dinagu	joagu/jonagu	yuk/yune
	dute	dabe	dere, deude	ditek/diten	juek/juen	ye(r/d)ek, ye(r/d)ena
NOR-NORK Indikatiboa oraina (haiek)	ditut	dodaz	doas	ditiat/ditinat	joadaz/jonadaz	yoas/yoasena
	dituk/ditun	dozak/dozan	dosak/dosena	[dituk/ditun]	[dozak/dozan]	[dosak/dosena]
	ditu	dauz	dittu	ditik/ditin	jozak/jozan	yosak/yosena
	ditugu	doguz	dus	ditiagu/ditinagu	joaguz/jonaguz	yusek/yusena
	dituzte	dabez	dittue, deres	ditiztek/ditizten	juezak/juezan	yesak/yesena
NOR-NORK Indikatiboa iragana (hura)	nuen	neban	neun	nian/ninan	najoan/najonan	neun/neune
	huen	heuan	endun	[huen]	[heuan]	[endun]
	zuen	eban	eun	zian/zinan	joan/jonan	yeun/yeune
	genuen	genduan	gendun	genian/geninan	genduan/gendunan	gendun/gendune
	zuten	eben	euden, eren	zitean/zitenan	juen/juean	ye(ud/r)en/ye(ud/r)ena
NOR-NORK Indikatiboa iragana (haiek)	nituen	nebazan	neusen	nitian/nitinan	najoazan/najoazan	neusen/neusena
	hituen	heuzan	endus	[hituen]	[heuzan]	[endus]
	zituen	ebazan	eusen	zitian/zitinan	joazan/joazan	yeusen/yeusena
	genituen	genduzan	gendusen	genitian/genitinan	genduzan/genduzan	gendusen/gendusena

	zituzten	ebezan	e(re)san	zitiztean/zitiztenan	juezan/juenazan	yeresan/yeresena
NOR-NORK Baldintza ondorioa hipotetikoa (hi)	hintuket	hinduket	enduket	[hintuket]	[hinduket]	[enduket]
	hintuke	hinduke	enduke	[hintuke]	[hinduke]	[enduke]
	hintukegu	hindukegu	endukegu	[hintukegu]	[hindukegu]	[endukegu]
	hintukete	hindukie	enduke	[hintukete]	[hindukie]	[enduke]
NOR-NORK Baldintza ondorioa hipotetikoa (hura)	nuke	neuke	neuke	nikek/niken	neukek/neuken	neukek/neukena
	huke	heuke	eunke	[huke]	[heuke]	[eunke]
	luke	leuke	leuke	likek/liken	leukek/leuken	leukek/leukena
	genuke	geunke	geunke	genikek/geniken	geunkek/geunken	geunkek/geunkena
	lukete	leukie	leuke	liketek/liketen	leukiek/leukien	leukek/leukena
NOR-NORK Baldintza ondorioa hipotetikoa (haiek)	nituzke	neukez	neukes	nitizkek/nitizken	neukezak/neukezan	neukesak/neukesena
	hituzke	heukez	eu(n)kes	[hituzke]	[heukez]	leukesak/leukesena
	lituzke	leukez	leukes	litizkek/litizken	leukezak/leukezan	leukesak/leukesena
	genituzke	geunkez	geunkes	genitizkek/genitizken	geunkezak/geunkezan	geunkesak/geunkesena
	lituzkete	leukiez	leukes	litizketek/litizketen	leukiezak/leukiezan	leukesak/leukesena
NOR-NORK Ahalera oraina (hura)	nezake	neike	nei	nezakek/nezaken	neinek/neinken	neik/neikena
	hezake	heike	eike	[hezake]	[heike]	[eike]
	lezake	leike	lei	lezakek/lezaken	leiek/leiken	leik/leikena
	genezake	geinke	geinke	genezakek/genezaken	geinkek/geinken	geinkek/geinkena
	lezakete	leikie	leye/leie	lezaketek/lezaketen	leikiek/leikien	leiek/leikena
NOR-NORK Ahalera oraina (haiek)	nitzake	neikez	neis	nitzakek/nitzaken	neikezak/neikezan	neikesak/neikesena
	hitzake	heikez	eikes	[hitzake]	[heikez]	[eikes]
	litzake	leikez	leis	litzakek/litzaken	leikezak/leikezan	leikesak/leikesena
	genitzake	geinkez	geinkes	genitzakek/genitzaken	geinkezak/geinkezan	geinkesak/geinkesena
	litzakete	leikiez	leyes	litzaketek/litzaketen	leikiezak/leikiezan	leikesak/leikesena
NOR-NORK Agintera (hura eta haiek)	ezak/ezan	eik/ein	eik/eiñe	[ezak/ezan]	[eik/ein]	[eik/eiñe]
	itzak/itzan	eizak/eizan	eixek/eixena	[itzak/itzan]	[eizak/eizan]	[eixek/eixena]
NOR-NORI-NORK Indikatiboa oraina (niri-hura)	didak/didan	deustak/deustan	deustek/deustena	[didak/didan]	[deustak/deustan]	[deustek/deustena]
	dit	deust	deust, dost	zidak/zidan	jeustak/jeustan	yostek/yostena
	didate	deuste	deuste, doste	zidatek/zidaten	jeustiek/jeustien	yostek/yostena
NOR-NORI-NORK Indikatiboa oraina (guri-hura)	diguk/digun	deuskuk/deuskun	doskuk/doskune	[diguk/digun]	[deuskuk/deuskun]	[doskuk/doskune]
	digu	deusku	dosku	ziguk/zigun	jeuskuk/jeuskun	yoskuk/yoskune
	digute	deuskue	doskue	zigutek/ziguten	jeuskuek/jeuskuen	yoskuek/yoskuena
NOR-NORI-NORK Indikatiboa oraina (hiri-hura)	diat/dinat	deuat/deunat	deut/deutena	[diat/dinat]	[deuat/deunat]	[deut/deutena]
	dik/din	deua/deuna	deu/deune	[dik/din]	[deua/deuna]	[deu/deune]
	diagu/dinagu	deuagu/deunagu	deuk/deune	[diagu/dinagu]	[deuagu/deunagu]	[deuk/deune]

	diate/dinate	deue/deune	deudek/deudena	[diate/dinate]	[deue/deune]	[deudek/deudena]
NOR-NORI-NORK Indikatiboa oraina (hari-hura)	diot	deutsat	dotzet	zioat/zionat	jeutseat/jeutsanat	yotzet/yotzetena
	diok/dion	deutsak/deutsan	dotzek/dotzena	[diok/dion]	[deutsak/deutsan]	[dotzek/dotzena]
	dio	deutso	deutzo, dotzo	ziok/zion	jeutsak/jeutsan	yotzek/yotzena
	diogu	deutsagu	dotzu	zioagu/zionagu	jeutseagu/jeutsanagu	yotzuk/yotzune
	diote	deutsie	dotze	ziotek/zioten	jeutsiek/jeutsane	yotzek/yotzena
NOR-NORI-NORK Indikatiboa oraina (haiei-hura)	diet	deutset	dotzet	zieat/zienat	jeutsiet/jeutsenat	yotzet/yotzetena
	diek/dien	deutsek/deutsen	dotzek/dotzena	[diek/dien]	[deutsek/deutsen]	[dotzek/dotzena]
	die	deutse	deutzo, dotzo	ziek/zien	jeutsek/jeutsen	yotzek/yotzena
	diegu	deutsegu	dotzu	zieagu/zienago	jeutsiegu/jeutsenagu	yotzuk/yotzune
	diete	deutsiee	dotze	zietek/zieten	jeutsiek/jeutsien	yotzek/yotzena
NOR-NORI-NORK Indikatiboa oraina (niri-haiek)	dizkidak/dizkidan	deustazak/deustazan	deustesak/deustesena	[dizkidak/dizkidan]	[deustazak/deustazan]	[deustesak/deustesena]
	dizkit	deustaz	deustes, dostes	zizkidak/zizkidan	jeustazak/jeustazan	yostesak/yostesena
	dizkide	deustez	deustes/dostes	zizkideak/zizkiden	jeustiezak/jeustiezan	yostesak/yostesena
NOR-NORI-NORK Indikatiboa oraina (guri-haiek)	dizkiguk/dizkigun	deuskuzak/deuskuzan	doskusek/doskusena	[dizkiguk/dizkigun]	[deuskuzak/deuskuzan]	[doskusek/doskusena]
	dizkigu	deuskuz	doskus	zizkiguk/zizkigun	jeuskuzak/jeuskuzan	yoskusek/yoskusena
	dizkigute	deuskuez	doskues	zizkigutek/zizkiguten	jeuskuezak/jeuskuezan	yoskusek/yoskusena
NOR-NORI-NORK Indikatiboa oraina (hari-haiek)	dizkiot	deutsadaz	dotzeas	zizkiot/zizkionat	jeutseadaz/jeutsanadaz	yotzedas/yotzasena
	dizkiok/dizkion	deutsazak/deutsazan	dotzesak/dotzesena	[dizkiok/dizkion]	[deutsazak/deutsazan]	[dotzesak/dotzesena]
	dizkio	deutsoz	dotzos	zizkiok/zizkion	jeutsazak/jeutsazan	yotzesak/yotzesena
	dizkiogu	deutsaguz	dotzus	zizkiogu/zizkionagu	jeutseaguz/jeutsanaguz	yotzusek/yotzesena
	dizkiote	deutsiez	dotzes	zizkiotek/zizkieten	jeutsiezak/jeutsiezan	yotzesak/yotzesena
NOR-NORI-NORK Indikatiboa oraina (haiek-haiek)	dizkiet	deutsedaz	dotzeas	zizkieat/zizkienat	jeutsiedaz/jeutsienadaz	yotzedas/yotzasena
	dizkiek/dizkien	deutsezak/deutsezatan	dotzesak/dotzesena	[dizkiek/dizkien]	[deutsezak/deutsezatan]	[dotzesak/dotzesena]
	dizkie	deutsez	dotzes	zizkiek/zizkien	jeutsezak/jeutsezatan	yotzesak/yotzesena
	dizkiegu	deutseguz	dotzus	zizkieagu/zizkienagu	jeutsieguz/jeutsenaguz	yotzusek/yotzesena
NOR-NORI-NORK Ahalera oraina (nik-hura)	dizkiete	deutsieez	dotzes	zizkietek/zizkieten	jeutsiezak/jeutsiezan	yotzesak/yotzesena
	niake/ninake	neuskik/neuskin	niskik/niskiñe	[niake/ninake]	[neuskik/neuskin]	[niskik/niskiñe]
	nioke	neuskio	niskio, nio	niokek/nioken	neuskioek/neuskion	niskioek/niskiona
EGON NOR oraina	nieke	neuskie	niskie, nie	niekek/nieken	neuskiek/neuskien	---
	nago	nago	nao, nau	nagok/nagon	najagok/najagon	naiyok/naiyona
	hago	hago	au	[hago]	[hago]	[au]
	dago	dago	dao, dau	zagok, zegok/zagon, zegon	jagok/jagon	yaok/yaona
	gaude	gagoz	gaos, gaus	gaudek/gauden	g(aj)agozak/g(aj)agozan	gayosak/gayosena
ETORRI	daude	dagoz	daos, daus	z(a/e)udek/z(a/e)uden	jagozak	yosak/yosena
	nator	nator	nator	natorrek/natorren	najatok/najaton	natorrek/natorrena

NOR oraina	hator	hator	ator	[hator]	[hator]	[ator]
	dator	dator	dator	z(a/e)torrek/z(a/e)torren	jatok/jaton	yatorrek/yatorrena
	gatoz	gatzo	gatos	gatozak/gatozan	gajatozak/gajatozan	gatosak/gatosena
	datoz	datoz	datos	z(a/e)tozak/z(a/e)tozan	jatozak/jatozan	yatosak/yatosena
JOAN NOR oraina	noa	noa	noo	noak/noan	najoak/najoan	nayok, niok/ nayona
	hoa	hoa	oo	[hoa]	[hoa]	[oo]
	doa	doa	doo	zoak/zoan	joak/joan	yok/yona
	goaz	goaz	gos	goazak/goazan	gajoazak/gajoazan	gayosak/gayosena
	doaz	doaz	dos	zoazak/zoazan	joazak/joazan	yosak/yosena
IBILI NOR oraina	nabil	nabil	nabill	nabilek/nabilen	njabik/njabin	nabilek/nabillena
	habil	habil	abill	[habil]	[habil]	[abill]
	dabil	dabil	dabill	z(a/e)bilek/z(a/e)bilen	jabik/jabin	yabilek/yabillena
	gabiltza	gabiltza	gabiltzes	gabiltzak/gabiltzan	gajabiltzak/gajabiltzan	gabiltzesak/gabiltzesena
	dabiltza	dabiltza	dabiltzes	z(a/e)biltzak/z(a/e)biltzan	jabiltzak/jabiltzan	yabiltzesak/yabiltzesena
EDUKI NOR-NORK oraina (hura)	daukat	daukat	dekot	z(a/e)ukaat/z(a/e)ukanat	jaukeat/jaukanat	yekot/yekotena
	daukak/daukan	daukak/daukan	dekok/dekona	[daukak/daukan]	[daukak/daukan]	[dekok/dekona]
	dauka	dauka	deko	z(a/e)ukak/z(a/e)ukan	jaukak/jaukan	yekok/yekona
	daukagu	daukagu	deku	z(a/e)ukaagu/z(a/e)ukanagu	jaukeagu/jaukanagu	yekuk/yekune
	daukate	daukie	deuke	z(a/e)ukatek/z(a/e)ukaten	jaukiek/jaukien	yekek/yekena
EDUKI NOR-NORK oraina (haiek)	dauzkat	daukadaz	deko(d)as	z(a/e)uzkaat/ z(a/e)uzkanat	jaukeadaz/jaukanadaz	yekoas/yekosena
	dauzkak/dauzkan	daukazak/daukazan	dekosak/dekosena	[dauzkak/dauzkan]	[daukazak/daukazan]	[dekosak/dekosena]
	dauzka	daukaz	dekos	z(a/e)uzkak/z(a/e)uzkan	jaukazak/jaukazan	yekosak/yekosena
	dauzkagu	daukaguz	dekus	z(a/e)uzkaagu/z(a/e)uzkanagu	jaukeaguz/jaukanaguz	yekusek/yekusena
	dauzkate	daukiez	deukes	z(a/e)uzkatek/z(a/e)uzkaten	jaukiezak/jaukiezan	yekesak/yekesena
EROAN NOR-NORK oraina (hura)	daramat	darroat	darot	z(a/e)ramaat/z(a/e)ramanat	jaroekat/jaroanat	yarot/yarotena
	daramak/daraman	darook/daroan	darok/darona	[daramak/daraman]	[darook/daroan]	[darok/darona]
	darama	daroa	darok	z(a/e)ramak/z(a/e)raman	jaroak/jaroan	yarok/yarona
	daramagu	daroaagu	daru	z(a/e)ramaagu/z(a/e)ramanagu	jaroaegu/jaroanagu	yaruk/yarune
	daramate	daroe	dare	z(a/e)ramatek/z(a/e)ramaten	jarioiek/jarioien	yarek/yarena
EROAN NOR-NORK oraina (haiek)	daramatzat	daroadaz	darooas	z(a/e)ramatzaat/z(a/e)ramatzanat	jaroeadaz/jaroanadaz	yaroas/yarosena
	daramatzak/daramatzan	darooazak/darooazan	darosak/darosena	[daramatzak/daramatzan]	[darooazak/darooazan]	[darosak/darosena]
	daramatza	darooaz	daros	z(a/e)ramatzak/z(a/e)ramatzan	jaroazak/jaroazan	yarosak/yarosena
	daramatzagu	darooaguz	darus	z(a/e)ramatzaagu/z(a/e)ramatzanagu	jaroaeguz/jaroanaguz	yarusek/yarusena
	daramatzate	darooez	dares	z(a/e)ramatzatek/z(a/e)ramatzaten	jarioezak/jarioezan	yaresak/yaresena
EROAN NOR-NORK (hik-ni eta hik-gu)	naramak/naraman	naroak/naroan	narok/narona	[naroak/naroan]	[najoarak/najoaroan]	narok/narona
	garamatzak/garamatzan	garooazak/garooazan	garosak/garosana	[garooazak/garooazan]	[gajaroazak/gajaroazan]	garosak/garosana

EKARRI NOR-NORK oraina (hura)	dakart	dakart	dakat	z(a/e)karreat/z(a/e)karrenat	jakarrat/jakanat	yakarret/yakarrena
	dakark/dakarna	dakark/dakarn(a)	dakak/dakana	[dakark/dakarna]	[dakark/dakarn(a)]	[dakak/dakana]
	dakar	dakar	dakar	z(a/e)karrek/z(a/e)karren	jakak/jakan	yakarrek/yakarrena
	dakargu	dakargu	dakargu	z(a/e)karreagu/z(a/e)karrenagu	jakarragu/jakanagu	yakarruk/yakarrune
	dakarte	dakarre	dakarre, dakarde	z(a/e)kartek/z(a/e)karten	jakarrek/jakarren	yakarrek/yakarrena
EKARRI NOR-NORK oraina (haiek)	dakartzat	dakardaz	dakarreas	z(a/e)kartaat/z(a/e)kartzanat	jakarradaz/jakanadaz	yakarreas/yakarresena
	dakartzak/dakartzan	dakarzak/dakazan	dakasak/dakasena	[dakartzak/dakartzan]	[dakarzak/dakazan]	[dakasak/dakasena]
	dakartza	dakaz	dakas	z(a/e)kartzak/z(a/e)kartzan	jakazak/jakazan	yakasak/yakasena
	dakartzagu	dakarguz	dakargus	z(a/e)kartaagu/z(a/e)kartzanagu	jakarraguz/jakanaguz	yakarrusek/yakarrusena
	dakartzate	dakarrez	dakarres	z(a/e)kartzatek/z(a/e)kartzaten	jakarrezak/jakarrezan	yakarresak/yakarresena
EKARRI NOR-NORK (hik-ni eta hik-gu)	nakark/nakarna	nakark/nakarn(a)	nakak/nakana	[nakark/nakarna]	[najakak/najakan]	[nakak/nakana]
	gakartzak/gakartzan	gakarzak/gakarzan	gakasak/gakasana	[gakartzak/gakartzan]	[gajakazak/gajakazan]	[gakasak/gakasana]
ESAN N-K eta N-I-K (hik-hura eta hik-hari)	diok/dion	dinok/dinon	diñok/diñona	[diok/dion]	[dinok/dinon]	[diñok/diñona]
	diotsek/diotsen	dinotsek/dinotsen	diñotzek/diñotzena	[diotsek/diotsen]	[dinotsek/dinotsen]	[diñotzek/diñotzena]
JAKIN NOR-NORK oraina (hura)	dakit	dakit	dakitt	z(a/e)kiat/z(a/e)kinat	jakiat/jakinat	yakitt/yakittena
	dakik/dakin	dakik/dakin	dakik/dakiñe	[dakik/dakin]	[dakik/dakin]	[dakik/dakiñe]
	daki	daki	daki	z(a/e)kik/z(a/e)kin	jakik/jakin	yakik/yakiñe
	dakigu	dakigu	dakiu	z(a/e)kiagu/z(a/e)kinagu	jakiagu/jakinagu	yakiuk/yakiune
	dakite	dakie	dakie	z(a/e)kitek/z(a/e)kiten	jakiek/jakien	yakiek/yakiena
JAKIN NOR-NORK oraina (haiek)	dakizkit	dakidaz	dakies	z(a/e)kizkiat/z(a/e)kizkinat	jakiadaz/jakinadaz	yakies/yakiesena
	dakizkik/dakizkin	dakizak/dakizan	dakixek/dakixena	[dakizkik/dakizkin]	[dakizak/dakizan]	[dakixek/dakixena]
	dakizki	dakiz	dakix	z(a/e)kizkik/z(a/e)kizkin	jakizak/jakizan	yakixek/yakixena
	dakizkigu	dakiguz	dakius	z(a/e)kizkiagu/z(a/e)kizkinagu	jakiaguz/jakinaguz	yakiusek/yakiusena
	dakizkite	dakiez	dakies	z(a/e)kizkitek/z(a/e)kizkiten	jakiezak/jakiezan	yakiesak/yakiesena
JAKIN NOR-NORK (hik-hura)	baheki	baheki	baenki/baenkiñe	[baheki]	[baheki]	[baenki/baenkiñe]

Joseba Santxo Uriarte